



**LITERATURA
DRAMATIKOA**

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

Azterketa honek HIRU atal ditu. Lehenengo eta hirugarren atalean bi galderetako bati erantzun behar diozu.

Jarraibideetan adierazi baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal).

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea.

1. ATALA. Obraren iruzkina eta analisisa (4 puntu).

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisa:

a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.

- Antzerki-generoa (0,5 puntu).
- Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
- Pertsonaien ezaugarriak (0,5 puntu).
- Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritutakoa (0,5 puntu).

b) Estiloa eta formaren azterketa.

- Antzerki-testuaren formaren berezitasunak (1 puntu).
- Antzerkiko testu idatziaren ezaugarri zehatzak (akotazioak eta dialogoak) (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian honakoak balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpenaren egokitasuna, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak.

2. ATALA. Antzerki-praktikak jorratuz testu-dramatiko bat sortzea eta argudiatzea (3 puntu).

Argudiaketa- eta planifikazio-testu bat idatzi behar da lehenik. Testuak gutxienez 150 hitz izan behar ditu, eta gehienez 200; eta honako alderdi hauek landu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak garatu. (1 puntu)
- Proposatutako ariketarekiko egokitasuna. (1 puntu)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

LITERATURA DRAMATIKOA

LITERATURA DRAMÁTICA

Bigarrenik, testu dramatiko bat idatzi, argudiaketan zehazturiko ideiak aintzat hartzen dituen. Gutxienez orrialde-erdi idatzi, eta gehienez orrialde bat. (1 puntu)

3. ATALA. Antzerki-artearen inguruko kontzeptuei buruzko galderak **(3 puntu)**

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Gutxienez 100 hitz idatzi behar dira kontzeptu bakoitzeko, eta gehienez 200. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 1,5 puntu emango zaio bakoitzari.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

**LITERATURA
DRAMATIKOA**

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

1. ATALA – Iruzkina eta analisisia. Aukera bietako bat hautatu. (4 puntu)

- a) Agurtzane Intxaurraga eta Arantxa Iturbe. *Ai, ama!*
- b) Samuel Beckett. *Godoten esperoan.*

2. ATALA. Antzerki-praktikak jorratuz testu-dramatiko labur bat sortzea eta argudiatzea. (3 puntu)

Ibrahima Balde eta Amets Arzallus. *Miñan.*

3. ATALA. Antzerki-artearen inguruko kontzeptu hauetatik BI aukeratu, eta eduki nagusiak idatzizko testu batean garatu. (3 puntu)

- a) antzerki-pertsonaia.
- b) antzezpén-errealizazioa.
- c) antzerki-harrera.
- d) antzerki-testua (definizioa eta elementuak).



**LITERATURA
DRAMATIKOA**

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

1. ATALA. Iruzkina eta azterketa. Aukera bietako bat aukeratu.

a) Agurtzane Intxaurrea eta Arantxa Iturbe. *Ai, ama!*. 1. ESZENA.

I.

(Eszenatoki zuria, lurra eta ingurua, dena da zuri. Atzealdean sokazko bi zabu. Zabuetan eserita, trapuzko bi panpina. Eszenaren eskuin aldean plataforma borobil bat. Honen erdian ere zabua. Plataformaren lurzoruak alde batera edo bestera jiratzeko aukera ematen du.

Aurrealdean beste bi zabu hutsik. EMAKUME 1 (35 urte) eta EMAKUME 2 (39 urte) haiei eragiten, umeak hantxe dituztela irudikatuz. EMAKUME 3 (65 urte), bitartean, erdiko zabu handian eserita. Hirurak zuriz jantzita daude eta irribarre zabaleko maskara banarekin estalia aurpegia.

Musika alaia entzuten da, emakume ahotsez kantatua.

EMAKUME 1ek eta EMAKUME2k zabuei eragiteari utzi eta atzeko zabuetan dauden panpinak besoetan hartu eta dantzan hasiko dira.

Hiru EMAKUMEak amatasunaren zoriontasunari buruzko iragarki bat interpretatzen ari dira.

Ondorengo ahots guztiak, hiru EMAKUMEenak, nahiz NARRATZAILEAren OFF-ean entzungo ditugu.)

1: Ai, ama!

2: Ai, ama!!

3: Ai, ama!!!

NARRATZAILEA OFF: Amak dira. Esan egin beharra al zegoen? Ez al zaie antzematen? Ez al zarete konturatu nola egiten duten irribarre?

(EMAKUME 1-2-3k aurpegian daramaten irribarrea erakutsiko dute.)

NARRATZAILEA OFF: Irribarre honek badu bere arrazoia: euren seme-alabak. Amak dira, eta euren seme-alabei begira egingo lukete egun osoa, ez zaie zeregin hoberik bururatzen! Bizitza honetan zeukaten helburu nagusia bete dute! Horregatik egiten dute irribarre. Beti irribarre!

1: Ai, ama! Txikiak loreontziko lur guztia atera dizu!

2: Ez kezkatu! Aspiradora pasako dut!

1: Ai, ama! Etxeko giltzak komunetik behera bota dizkizu!



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

LITERATURA DRAMATIKOA

LITERATURA DRAMÁTICA

3: Lasai, bizilaguna linterneroa da.

1: Ai, ama! ColaCao guztia sofa berriaren gainean hustu dizu!

2: Eta zer? Di-da batean igurtzi eta berria bezala geratuko zait!

NARRATZAILEA OFF: Zer ote da ama izatea?

2: Ez dakit, baina gaur nik ez dut egun ona izan lanean. Lur jota nator.
Zuzendariarekin eztabaida, lankideekin gaizki-ulertuak...

NARRATZAILEA OFF: Eta zer? Egin irribarre, emakumea! Begiratu txikiari.

2: Behatzak lehertu beharrean nator enkargutatik!

NARRATZAILEA OFF: Zer da ba hori? Begiratu txikiari. Egiozu irribarre!

2: Biharko lan entrebistarako apropos prestatuta neukan soinekoaren gainean
egin dit txiza!

NARRATZAILEA OFF: Eta zertarako daukazu mila erreboluziotan lehortzen
duen labadora? Ez galdu irribarrerik!

1: Ai, nire txikia!

2: Laztana, egin looo, egin loooo... Ni hemen nago, amatxo hemen dago zure
loa zaintzeko.

3: Maitea, pasako da mina. Amatxok emango dizu masajea, eta pasako da.
Amatxorekin zauden bitartean dena pasako da.

1: Txiza egin al duzu galtzetan? Ez da ezer! Oraintxe aldatuko zaitut, eta
ikusiko duzu zeinen goxo jarriko zaitudan, lehor-lehor.

2: Mina hartu al duzu belaunean? Hemen? Min asko-asko? Ez da ezer.
Oraintxe sendatuko dizut.

3: Amesgaiztoa izan al duzu? Ez da ezer, oraintxe ahaztuko duzu. Nik
lagunduko dizut.

NARRATZAILEA OFF: Amak dira.

1-2-3: Ai, ama!!!



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

**LITERATURA
DRAMATIKOA**

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

b) Samuel Beckett. *Godoten esperoan*. LEHEN EKITALDIA.

(...)

Landa-bide bat, zuhaitz batekin.

Arrastia.

Estragon, harri tontor baten gainean eserita, oinetakoa kentzen saiatzen da. Bi eskuekin ahalegintzen da, arnaska. Gelditu egiten da, akiturik; atseden hartzen du, hasperenka; berriro ekiten dio. Atzera berriz kontu bera.

Vladimir sartzen da.

ESTRAGON (*ostera ere etsiz*): Ez zagok zer eginik.

VLADIMIR (*pausotxo zurrunez hurbildurik, zangoak zabal-zabal eginik*): Ni ere uste horretara makurtzen ari nauk. (*Geldi-geldi geratzen da.*) Etsi-etsian eutsi zioat luzaroan, neure buruari esanez, Vladimir, zentzuduna izan hadi, ez duk oraindik den-dena ere saiatsu. Eta borrokari ekiten nioan osteratu. (*Bere baitara biltzen da, gogoan borrokan. Estragoni:*) Hemen haut, hortaz, berriro.

ESTRAGON: Hik uste al duk?

VLADIMIR: Pozik nagok hi osteratu ikusteaz. Betiko joana hintzelakoan nengoan.

ESTRAGON: Ni ere bai.

VLADIMIR: Ospatu beharra zagok berriro elkartu izana. (*Hausnarrean hasten da.*) Nola, ordea? Altxa hadi, besarka hazadan. (*Eskua luzatzen dio Estragoni.*)

ESTRAGON (*erretasunez*): Poliki, hi, poliki.

Isilunea.

VLADIMIR (*mindurik, hozki*): Jakin ote daiteke non igaro duen berorrek gaua?

ESTRAGON: Hobi batean.

VLADIMIR (*txunditurik*): Hobi batean! Non hola?

ESTRAGON (*keinurik gabe*): Hor barrena.

VLADIMIR: Eta ez haute egurtu?

ESTRAGON: Bai... Ez gehiegi ere.

VLADIMIR: Lehengo berak al ziren?

ESTRAGON: Lehengoak? Ez zakiat.

Isilunea.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

**LITERATURA
DRAMATIKOA**

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

**LITERATURA
DRAMÁTICA**

VLADIMIR: Horretaz gogoeta eginik... urteak joanean... maiz bururatzen zaidak... zertan ote hintzatekeen... ni gabe... (Deliberamenduz.) Ez hintzateke hezur pilotxo bat besterik dagoeneko, ez zagok dudarik.

ESTRAGON (erretxindurik): Eta?

VLADIMIR (lur jota): Gehiegi duk hau gizon bakar batentzat. (Tartea. Bizi-bizi.) Beste alde batetik, ordea, zertarako etsi orain, horra zer esaten diodan neure buruari. Aspaldi handian pentsatu beharra zegoan hori, mendea hasterako, hortxe.

ESTRAGON: Aski. Lagun iezadak zaborreria hau kentzen.

VLADIMIR: Elkarri eskutik helduta botako genian geure burua Eiffel dorretik behera, estreinakoen artean. Itxurazkoak gintuan sasoi hartan. Orain beranduegi duk. Ez liguketek igotzen ere utziko. (Estragon oinetakoarekin ahalegintzen da berriro.) Zertan ari haiz?

ESTRAGON: Oinetakoa erantzten. Ez zaik hiri inoiz egokitu?

VLADIMIR: Aspertu nauk hiri esaten egunero kendu behar direla oinetakoak. Hobe huke adi bahengo.

ESTRAGON (ahulki): Lagun iezadak!

VLADIMIR: Min duk?

ESTRAGON: Min! Hara bestea, ea min dudan!

VLADIMIR (haserre-espantuz): Inork ez dik noski sufritzen inoiz, hik baino! Ni zertan naizen bost axola, ezta? Nahi nitek, haatik, nire lekuan bahengo. Esango hidake orduan.

ESTRAGON: Min izan duk?

VLADIMIR: Hara bestea, ea min izan dudan!

ESTRAGON (hatz erakusleaz seinalatuz): Hala eta guztiz ere, botoiak lotu behar hituzke.

VLADIMIR (burua paparrera makurtuz): Egia. (Botoiak lotzen ditu.) Zabarkeriarik ez, gauza txikietan.

ESTRAGON: Zer nahi duk esatea, beti azken unearen zain hago.

VLADIMIR (amesti): Azken unea... (Hausnar egiten du.) Itxarote luzea, zorion hobe. Nork zioen hori?

(...)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

LITERATURA
DRAMATIKOA

LITERATURA
DRAMÁTICA

2. ATALA. Antzerki-praktikak jorratuz testu-dramatiko labur bat sortzea eta argudiatzea. (3 puntu)

Artedramak antzerkirako moldaturiko *Miñan* liburuan, Ibrahima Balde eta Amets Arzallus egileek migratzaileen odisea jorratzen dute. Eleberri laburrean ondorengo pasartea irakur daiteke, non hainbat migratzaile atzeman eta kamioian sartzen dituzten:

“Bost egunez ibili gintuzten kamioian, jatekorik gabe. Edateko ura, bidoi txiki bat, besterik ez. Batzuek botaka egin zuten, besteek dena galtzetan. Han, txizalarriak jotzen bazaitu galtzetan egin beharko duzu, ez duzu beste aukerarik. Kamioia ez da geldituko.

Nik Aljeriara gindoazela uste nuen, hala esan zidaten Gaon. Beste batzuek ‘Italia’ esan zuten, eta Italiarako kamioian sartu zituzten. Gehienek ‘Espainia’ hautatu zuten, eta Espainiarako kamioira igoarazi zituzten. Baina hori dena gezurra da, dirua harrapatzeko joko bat.”

Hori horrela, asmatu kamioian doazen bi pertsonaia, eta idatzi, lehenik argudiaketa- eta planifikazio-testu bat pertsonaia eta eszenaren xehetasunak bilduz. Idatzi gutxienez 150 hitz eta gehienez 200.

Jarraian, sortu elkarrizketa dramatiko labur bat, gutxienez orrialde-erdi eta gehienez orrialde bat idatziz.